

- 1.- TEKILADUN AEROFONOAK
- 2.- TEKILADUN KORDOFONOAK
- 3.- METALEZKO AEROFONOAK
- 4.- ZUREZKO AEROFONOAK
- 5.- HARI IGURTZIZKO KORDOFONOAK

HOTSAK SORTZEN

**ZUREZKO
AEROFONOAK**

ZER DA HOTSAK SORTZEN?

HOTSAK SORTZEN bideo-serieak gaur egun musikaren munduan erabiltzen diren musika-tresnak, taldeka sailkatuak, ikaslegoari erakutsi nahi dizkio eta, bere helburu nagusia ikaslego horri musikaren alderdi honen ulermenaren erraztea eta laburbiltzea da.

Bideo-seriea musika ematen duen irakaslea bere eguneroko lanean laguntzeko tresna osagarri bat eskaintzeko asmoz eratu da. Horrela berak eskuartean dituen bestelako bitartekoak, liburuak, musika-tresna bidezko ekimenak, audizioak e.a. HOTSAK SORTZEN bideo-serieaz indartu eta aberastu egin ahal izango ditu.

Musika-tresnak sailkatzerakoan erabiltzen den hiztegia orohar, C.Sandis-ek 1914. urtean proposatu zuenari jarraikiz osatu da. Dena dela irakasleak ikusi beharke du zein hiztegi komeni zaion, orain arte arabili duena kontuan hartuta. Hala ere interesgarria litzateke ikaslegoaren antzinako formel buruzko jakinahia piztea. Izan ere gaur egun arruntki erabiltzen diren hainbat hitzek, orduko orolitzapena baitakarkigute. Besteak beste "telefono", "fonoteka" eta horrelakoak.

NOIZ ETA NOLA ERABILI HOTSAK SORTZEN

Hots eta doinuak sortzen duten musika-tresnei buruzko lan didaktiko hau, HOTSAK SORTZEN bataiatu duguna, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan diharduten taldeentzat pentasatua dago. Adierazpen Instrumentala izenburua duen Atal Nagusian legoke eta honen barruan Bigarren Edukin Multzoan "Adierazpena eta Komunikazioan" alegia.

Bideo-serieari heldu aurretik komenigarria litzateke ikaslegoa apur bat prestatu izatea. Horretarako, modu empirikoan bada ere, irakaslearen hitzaldiak medio, ikaslegoa musika-tresna eta hotsen berezitasun fisikoekin berri izan dezan saiaturko gara lehenbizi. Gero, ezaguera empiriko horretatik egoera kognoszitibora iragan daitezen ahaleginduko gara, Bigarren Edukin Multzo hau eta Hirugarrena "Musika Historian" dioena erlazionatuz.

HELBURU OROKORRAK

- 1.- Musika-tresna bakoitza berezko dituen doinuak medio ezagutua izan dadin lortzea.
- 2.- Doinua eta doinu hori ekoizten duen musika-tresna erlazionatzea. Horrekin batera doinua sortzeko modua eta forma musika tresnarekin erlazionatu.
- 3.- Musika-tresna bakoitzak historian bete duen lekua kokatzea.
- 4.- Doinuaren berezitasunak ezagutu, aurreko esperientzia musikaletan jasotako ezagueraz baliatuz.
- 5.- Musika-taldean barruan instrumentuak bereiztea. Lan hau musikagile kopuru ezberdinez osaturiko musika taldeekin egingo dugu.
- 6.- Musika-tresnak ikaslearen ingurune hurbilarekin erlazionatu.
- 7.- Mendebaldeko musika-talde garran-tzitsuenen ezagutza. Baita norberaren herri inguruak ere.

BIGAREN HELBURUAK

- 1.- Entzumena garatzea.
- 2.- Doinuaren berezitasunak partitura batean nola adierazten diren ezagutzea.
- 3.- Doinuaren ezaugarri guztiak sor dezaketen instrumentuak sortzea.
- 4.- Musika eta natura elkartzea. Manifestazio hau nola ematen den erakustea instrumentuetan. Esaterako organoak badu "txori kantua" izeneko erregistro bat.

SERIEAREN EDUKIN OROKORRAK

Bideo bakoitzak eremu historikoan aurkeztuko ditu musika-tresnak, garaian garaiko moda eta estiloen eboluzioak beraien gain sortutako aldaketak erakutsiz bai teknikoki bai apaingarrietan. Musika-tresna ezberdinak ikusteak "Hotsak nola sortzen diren" erakustea du xede. Gai honek berebiziko zailtasunak ditu hainbat kasutan, esate baterako organoan. Horregatik, nahitaezkoa da instrumentuak zehatz-mehatz ikustea eta entzutea hori guztia ulertzeko. Horra hor ikus-entzutezkoen papera. Bideoan kontu handiz ukitzen den beste alderdi bat zera da: musika-tresna bakoitzari dagokion toki fisikoa eta ingurunea. Azken hauek aldaketa nabarmenak ezagutu dute historian zehar, garaia, giroa eta musika-tresnaren erabilera arabera.

JARRERAZKO HELBURUAK

- 1.- Talde lana bultzatuz, taldeari buruzko balorazioa eta errespetua landu.
- 2.- Erantzukizuna garatu proposaturiko ekintzetan parte bizia hartuz.
- 3.- Atenzioa, obsesbazioa, kontzentrazioa eta isiltasuna bizitu, inguruan dutenaz ohartzeko (hotsak eta doinuak barne) biderik onenak baitira.
- 4.- Musika-lengoiaren orokortasuna sentitzen saiatu munduko gizarte guztietan erabiltzen dela erakutsiz. Bess-talde musikaren ahalmen terapeutikoen berri ere emango diegu.
- 5.- Taldeko beste lagunekiko izan behar dugun begirune eta errespetua garatu.

ARIKETA

- Ikasleei ahal duten musika-tresna guztiak klasera ekar dezaten eskatuko diegu. Material guzti hori familiatan sailkatuko dugu edo taldean. Jarrailan ikasleek musika-tresna bakoitzaz demostrazio bat egingo dute eta denon artean, musika-jolea eta entzuleen artean instrumentuaren ezaugarriak zehaztuko dituzte, beti irakaslearen gidaritzapean.

- Herrian edo hirian ematen diren kontzertuetara joatea nahitaezko ariketa da, bideo-serie hau modu egokian landu nahi bada. Kontzertu ostean, klasean, ikasleek ikusi duten orkestra, banda edo musika-taldea zatitu egingo dute doinu eta instrumentuen arabera.

- Bideo-seriean erakusten diren instrumentuak komeni da historikoki begiratzea. Horretarako, gure herriko zein gertuen dugun hiriko antzinako eraikuntza nahiz museoetara joatea aholkatzen da. Toki horietan erraz aurkituko ditugu antzinako musika-tresnen arrastoak. Elizetako estatua eta irudietan edota arte ederretako museoetako koadroetan.

Ariketa hau eginez gero, -- MUSIKA - ARTEA - GARAIBO ESTILOA, erlazionatu ahal izango ditugu.

GLOSARIO

ZUREZKO AEROFONOAK
TUTU-HODI
HARMONIKOAK
AIRE BUHUNBA
AHOKO PIEZAK
HEDAPENA
PABILLOIA
MIHI SINPIEA
MIHI BIKOITZA
GILTZAK
EBANOKO ZURA
IREKTUNE-ZULO
ERREGISTROA
KONTRALTOA
BOSTUN-LAUDUN-ZORTZIDUN...

LIBURUAK

--El libro de la música--
V.V.A.A.
Parramon Institua
--Musicalia--
V.V.A.A.
Salvat, Iruña 1987
--Atlas de la música--
ULRICH, Michels
Alianza argitaletxea, Madrid 1982
--Diccionario Oxford de la música--
SCHOLES, Percy A.
Edhasa, Hermes, Sudamericana,
Barcelona, 1984.